



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO EKAINAREN 4KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.06.04.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

### **Zinegotziak:**

Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn., kanpoan dagoelako.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn., kanpoan dagoelako.  
Igor Ugalde Salazar jn., lanangatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Mendiko lanen esleipena.
- 3.-Herriko inbentario berezia prestatzeko emandako diru-laguntza.
- 4.-Baliabide turistikoak egokitzeko diru-laguntza deialdia.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2018ko maiatzaren 7an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,  
ONARTU DUTE.

2018ko maiatzaren 28an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,  
ONARTU DUTE.

Arantzako Udalak diru laguntza eskaera aurkeztu zuen eta Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako 251/2018 ebazpenaren bidez lortu da diru laguntza horretarako.

Kontuan hartuz ez dela 2018ko aurrekontuan partidarik horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udalaren inbentarioa egiteko onartzea.
- 2) 2018ko aurrekontuaren 1. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 3) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

#### **4.-BALIABIDE TURISTIKOAK EGOKITZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.**

Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak emandako 295E/2018 ebazpenaren bidez, maiatzaren 7koa, toki entitateendako diru-laguntza deialdia onesten du 2018an baliabide turistikoak egokitzeko.

Kontuan hartuz Udal honek egindako proiektua, herriko hirigunearen inguruko oinezko bideak egokitzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntza eskaera egitea aipatutako proiektuarentzat.

#### **5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 63. ebazpenetik 71. ebazpena arte.

#### **6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

#### **7.-MERCEDES ORDOQUI LARRECHEA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Mercedes Ordoqui Larrechea andreak Artxamana alderdian dauden pinuen probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 4. poligonoko 20. lur zatian).



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## **2.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

2.1.-Udal honek Basartea S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren Muniltza-Ollargata, Apitta eta Egiluzeko erreka alderdietako pisten hainbat lan esleitzeko gonbidapenak igorri zituen Iñaki Taberna Iturria, Peio Aginaga Mazizior, Mikel Ubiria eskabazioak S.L., Sasoi eraikuntzak S.L. eta Javier Alzugaray S.L. enpresei.

Lan horien aurrekontua 11.271,12 eurokoa da, BEZ barne.

Javier Alzugaray S.L. enpresak ez duela proposamenik aurkeztuko adierazi du.

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Iñaki Taberna Iturria: 8.864,00 euro, BEZ kanpo.

-Sasoi eraikuntzak S.L.: 9.314,97 euro, BEZ kanpo.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Iñaki Taberna Iturria enpresari aipaturako lanak egiteko esleitzea, 8.864,00 eurotan, BEZ kanpo, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

3) Halaber jakinaraztea obrak 2018ko abuztuaren 31rako eginak egon behar dutela.

4) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

2.2.-Udal honek Basartea S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren Ametxoko eta Apittako alderdietan mantenimendu eta bakantze lanak eta zerrakura biltzea esleitzeko gonbidapenak igorri zituen Berdabio Basogintza S.L., Pako Altzuri S.L., Repoblaciones Etxarte S.L. eta Carlos Txoperena Matxikote enpresei.

Lan horien aurrekontua 9.974,33 eurokoa da, BEZ barne.

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

-Berdabio Basogintza S.L.: 9.375,00 euro, BEZ barne.

-Carlos Txoperena Matxikote: 9.675,10 euro, BEZ barne.

-Repoblaciones Etxarte S.L.: 8.378,00 euro, BEZ kanpo.

Ikusirik Repoblaciones Etxarte S.L. enpresak aurkeztutako proposamena BEZ kanpo dela eta zerga hori desberdina dela lanen arabera (%10 eta %21)

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Repoblaciones Etxarte S.L. enpresari aurkeztutako proposamena zehaztea eskatzea, BEZ sartuz.

2) Akordio hau Repoblaciones Etxarte S.L. enpresari jakinaraztea.

## **3.-HERRIKO INBENTARIO BEREZIA PRESTATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA.**

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emandako 83/2018 ebazpenaren bidez, Nafarroako udalek ondasun eta eskubideen udal inbentarioa egin edo gaurkotzeko eta udalaren lurzoru ondarearen inbentario berezia prestatzeko diru-laguntzen 2018ko deialdia onesten du.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mercedes Ordoqui Larrechea andreak eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.

